Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko irailaren 2a, asteazkena — 167 — Miércoles, a 2 de septiembre de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZARAUZKO UDALA

*Iragarkia*

2020ko ekainaren 30an egindako osoko bilkuran oinarri hauek onartu zituen Udalbatzarrak: Gazteek proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak.

Halaber, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, dirulaguntza hauek emateko deialdia eta gastua onartu zituen 2019ko ekainaren 20ko 0773 Dekretuaren bidez Alkatetzak emandako eskumenaz baliatuta:

Aurrekontu-partida: 1.1001.481.06.337.20.2020.4418-Gazteen proiektuak gauzatzeko transferentziak. Aurrekontua: 20.000,00 €.

Interesdunek zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete oinarrien eta deialdiaren aurka, administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, horiek argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute, horren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkezteko, oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzeko errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo haren presuntziozko ezespena gertatu arte. Hori guztia, egoki iruditzen zaion beste edozein errekurtso aurkezteari utzi gabe.

Zarautz, 2020ko abuztuaren 20a.—Xabier Txurruka, alkatea.
(4278)

*Gazteek proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak.*

*1. Helburua.*

Oinarri hauen helburua da Zarauzko Udaleko Gazteria Departamentutik gazteei, norgehiagoka araubidez, era anitzeko proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

Urtean zehar edozein arlotan egindako proiektuak, gazteen interesa eta grina berezia islatzen dutenak, banaka zein taldeka aurkeztuak.

Adibide gisa jarraian zerrendatzen direnak:

— Ekintzailetza proiektuak.

— Zientziaren inguruko proiektuak.

— Ikus-entzunezko lanen produkzioa (zinea, bideoa, erakusketak...) edo teknologia berriekin erlazionaturikoak.

— Musikagileen maketen grabaketa eta edizioa.

— Komiki, fanzine edo bestelako kultur argitalpenen edizioa.

— Antzezlanen produkzioa eta antzezpena.

— Zarauztar gazteek gauzatu ditzaketen beste proiektu batzuk.

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 30 de junio de 2020, aprobó las bases específicas para el otorgamiento de subvenciones para el desarrollo de proyectos por parte de los y las jóvenes.

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 17 de agosto de 2020, adoptó el acuerdo, de aprobar la convocatoria y gasto de las ayudas, en virtud de las competencias atribuidas mediante Decreto de Alcaldía n.º 0773 de fecha 20 de junio de 2019:

Partida Presupuestaria: 1 1001.481.06.337.20.2020.4418 -Transferencia para realizar proyectos de jóvenes. Presupuesto: 20.000,00 €.

Contra las bases y la convocatoria, las personas interesadas podrán interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano competente que la haya aprobado, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Zarautz, a 20 de agosto de 2020.—El alcalde, Xabier Txurruka.
(4278)

*Bases específicas para el otorgamiento de subvenciones para el desarrollo de proyectos por parte de los y las jóvenes.*

*1. Objetivo.*

El objeto de las siguientes bases es la regulación de las condiciones para el otorgamiento, en régimen de concurrencia competitiva, de subvenciones por el Departamento de Juventud del Ayuntamiento de Zarautz para el desarrollo de proyectos de diversa índole.

Proyectos realizados en cualquier ámbito durante el año, aquellos que reflejen los intereses y las necesidades especiales del colectivo joven, presentados tanto individual como colectivamente.

A modo de ejemplo, los que se citan a continuación:

— Proyectos de emprendizaje.

— Proyectos relacionados con las ciencias.

— Producción de trabajos audiovisuales (cine, vídeo, exposiciones...) o relacionados con las nuevas tecnologías.

— Grabación y edición de maquetas musicales.

— Edición de cómics, fancines y otras publicaciones culturales.

— Producción y representación de espectáculos escénicos.

— Proyectos que los y las jóvenes de Zarautz puedan ir desarrollando.

EK\CV GAO-I-2020-04278

Dirulaguntza hauen iraupena honakoa izango da: deialdia egiten den urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

*2. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak.*

Oinarri hauetan arautzen diren laguntzen eskatzaile izan daitezke hurrengo baldintzak betetzen dituzten gazteak:

16 eta 30 urte bitarteko adina izatea eta Zarautzen erroldatua egotea azken hiru urtetan; taldean aurkeztuz gero, taldekideen hiru laurdenek bete beharko dute baldintza hori.

Dirulaguntza hauen onuradun izaera izango du dirulaguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoak, edota dirulaguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoenak. Pertsona horrek, gainera, dirulaguntzari dagokion eranskinak ezartzen dituen baldintza zehatzak bete beharko ditu, baita legeek edota bestelako arauek ezarritakoak ere.

Dirulaguntzekin batera aurkeztu beharreko zergei buruzko ziurtagiriak edo Gizarte Segurantzakoak ordeztu ahalko dira, interesdunek berariaz hartarako baimena emana duten kasuetan, ziurtagiri horiek emateko eskumena duten entitateek dirulaguntza kudeatzeko erantzukizuna duen organoari behar diren datuak emanda.

Pertsonen eskubideen aurkakoak edo iraingarriak diren edukiak dituzten jarduerak edo programak ez dira onartuko.

Proiektua onartu baino lehen, Gazteria Departamentuak erabakiko du ea aurkeztutako proiektuen edukia bat datorren Gazteria Departamentuaren helburuekin.

Diruz lagunduko diren egitasmoak euskaraz izan behar direnez, hau izango da komunikaziorako tresna bakarra, hedapenean eta jarduera gauzatzerakoan ere bai.

*3. Eskaerak.*

Dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoek eta baita nortasun juridikoa dutenek ere, gazte proiektu edo jarduera zehatzak egin nahi badituzte.

Dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako urteko deialdiaren bitartez.

Eskaerek Gazteria Departamentuaren urteko deialdian zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte.

Eskaerarekin batera indarrean dauden arauek eta urteroko deialdiak ezarritako dokumentazioa ere aurkeztuko da.

Eskaerak Zarauzko Udalaren Erregistro Orokorrean edo Udalaren zerbitzu telematikoan aurkeztu behar dira, dirulaguntza hauen urteko deialdian xedatzen den epearen barruan.

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea urteko deialdian zehaztuko da.

*4. Dirulaguntzaren zenbatekoa.*

Lagundu ahal izango diren kontzeptuak honako hauek izango dira:

a) Ekintzailetza proiektuak.

b) Zientziaren inguruko proiektuak.

c) Ikus-entzunezko lanen produkzioa (zinea, bideoa, erakusketak...) edo teknologia berriekin erlazionaturikoak.

d) Musikagileen maketen grabaketa eta edizioa.

e) Komiki, fanzine edo bestelako kultur argitalpenen edizioa.

f) Antzezlanen produkzioa eta antzezpena.

g) Zarauztar gazteek gauzatu ditzaketen beste proiektu batzuk.

La duración de estas subvenciones será la siguiente: desde el 1 de enero hasta 31 de diciembre del año de la convocatoria de las subvenciones.

*2. Requisitos para la solicitud de subvenciones.*

Podrán solicitar las subvenciones reguladas en las presentes bases, aquellos/as jóvenes que cumplan los siguientes requisitos:

Tener entre 16 y 30 años, y haber estado empadronado en Zarautz durante los tres últimos años; en caso de presentarse en grupo, el tercio de sus miembros deberá cumplir dicha condición.

Tendrá la consideración de beneficiaria de estas subvenciones la persona física o jurídica que haya de realizar la actividad que fundamentó su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitima su concesión y que, además, reúna los requisitos específicos establecidos para la subvención en su respectivo anexo, así como los establecidos por las leyes u otro tipo de normas.

La aportación de certificaciones tributarias o de Seguridad Social junto con las solicitudes de subvención se sustituirá, cuando se cuente con el consentimiento expreso de las personas interesadas, por la cesión de los correspondientes datos al órgano gestor de las subvenciones por parte de las entidades competentes para expedir tales certificaciones.

No se aceptarán aquellas actividades o programas que contengan contenidos ofensivos o contrarios a los derechos de las personas.

Con anterioridad a la aprobación del proyecto, el Departamento de Juventud determinará si el contenido del proyecto presentado coincide con los objetivos del departamento.

Los proyectos se deberán realizar en euskera, por lo que este será el único instrumento de comunicación, incluso a la hora de la difusión y el desarrollo de la actividad.

*3. Solicitudes.*

Podrán solicitar subvenciones las personas físicas sin personalidad jurídica, así como las que cuenten con personalidad jurídica, en el caso de que deseen desarrollar proyectos o actividades juveniles específicas.

El procedimiento para la concesión de las subvenciones se iniciará de oficio, mediante la publicación anual de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las solicitudes deberán cumplir las condiciones establecidas en la convocatoria anual del Departamento de Juventud.

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación exigida por las nomas vigentes y la convocatoria anual.

Las solicitudes deberán presentarse en el Registro General o el servicio telemático del Ayuntamiento, dentro del plazo señalado en la convocatoria anual de dichas subvenciones.

El plazo para la presentación de las solicitudes de las ayudas de concretará en la convocatoria anual.

*4. Cuantía de la subvención.*

Los conceptos e importes que se podrán conceder son los que se detallan a continuación:

a) Proyectos de emprendizaje.

b) Proyectos relacionados con las ciencias.

c) Producción de trabajos audiovisuales (cine, vídeo, exposiciones ...) o relacionados con las nuevas tecnologías.

d) Grabación y edición de maquetas musicales.

e) Edición de cómics, fancines y otras publicaciones culturales.

f) Producción y representación de espectáculos escénicos.

g) Proyectos que los y las jóvenes de Zarautz puedan ir desarrollando.


EK\CV GAO-I-2020-04278

Dirulaguntza lerro honen barruan eskaerak jasotzeko bigarren epe bat ireki daiteke urteko azken lau hilabeteetan, dagokion aurrekontu partidan dagoen kopurua bi zatitan adjudikatzeko (deialdi bakoitzerako erdia gordeta), urteroko deialdian hala zehaztuko balitz. Hau da, urtero, lehenengo deialdian, zehaztuko da eskaerak egiteko deialdi bakarra edota bi egingo diren.

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du aurkeztutako programa edo ekintzaren kostuetako gastuen % 40a gaindituko. Kostuetan diru-sarrerak % 60ra iristen badira dirulaguntzaren kostu osoaren % 100a finantzatu daiteke. Beti kontuan izango da dirulaguntzaren kopuruak ezingo duela, banaka edo beste dirulaguntza batzuk kontuan izanda, ekintza edo programaren kostua gainditu.

Irizpideak:

— Proiektu berritzaileak: 42 puntu.

— Hiritartasun aktiboa eta herriko bizitza soziokulturalean partaidetza: 33 puntu.

— Gazteen interesa eta grina piztuko duten proiektuak: 17 puntu.

— Hartzaileak gazteak (16-30 urte) dituzten proiektuak: 8 puntu.

Goian jasotako atalen aplikazioak puntuazio zehatz bat emango dio eskaera bakoitzari, lehentasun-hurrenkera ezarriz. 50 puntu gainditzen dituzten eskaerak onartuko dira eta, nahiko diru ez balego horien artean hainbanaketa egingo da.

5. *Laguntzak emateko prozedura.*

Laguntza hauek norgehiagoka araubidez emango dira.

1. Zehaztapena.

Dirulaguntza lerro horretan dagoen diru kopuruaren banaketa puntuen arabera proportzioan egingo da aurkeztu eta onartutako proiektuen artean.

2. Adjudikazio proposamena.

Irizpide horiek kasu bakoitzean aztertu eta baloratuko ditu ebaluazio batzordeak.

Ondoren, laguntzak adjudikatzeko proposamena egingo da, kasu bakoitzean, goian adierazitako moduan.

Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira justifikazioaren aurretiko fondo-entrega moduan, dirulaguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa. Nolanahi ere, azken zatiaren ordainketa egindako gastuaren justifikazioaren baldintzapean geratuko da.

6. *Diruz lagundutako jarduerak finantzatzea.*

Dirulaguntza oinarriek, eranskinen arabera, diruz lagundutako jardueraren finantzaketa propioaren zenbateko bat eska dezakete. Diruz lagundutako jarduerarako ekarpen propioa egiaztatu beharko da jardueran izandako gainerako gastuen modu berean.

Dirulaguntza eranskinetan besterik xedatzen ez bada, oinarri hauetan jasotzen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste herri-administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europako Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatzen dena baztertu gabe.

Dirulaguntzen zenbatekoa ezin izango da, bakarrik nahiz beste dirulaguntzekin batera, aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino handiagoa izan, etorkizunean diruz lagundutako proiektuak sortu ditzakeen irabaziak aintzat hartu gabe.

Dentro de esta línea de subvenciones se puede abrir un segundo plazo durante los últimos cuatro meses del año, para adjudicar en dos partes (guardando la mitad para cada convocatoria) la dotación económica en la correspondiente partida presupuestaria. Es decir, todos los años, en la primera convocatoria se determinarla si habrá una o dos convocatorias para llevar a cabo las solicitudes.

El importe de la subvención propuesto no superará el 40 % de los gastos del coste total del programa o actividad. Si en los costos los ingresos llegan al 60 %, se puede llegar a financiar el 100 % del costo total. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, supere el costo de la actividad o programa a desarrollar.

Criterios:

— Proyectos innovadores: 42 puntos.

— Ciudadanía activa y la participación en la vida sociocultural del municipio: 33 puntos.

— Proyectos que susciten el interés y deseo de los y las jóvenes: 17 puntos.

— Proyectos cuyos receptores sean los y las jóvenes (16-30 años): 8 puntos.

La aplicación de los apartados arriba recogidos otorgará una puntuación determinada a cada solicitud, estableciendo un orden de prelación. Se admitirán las solicitudes que superen los 50 puntos, y en caso de no existir cantidad suficiente se distribuirá entre ellas mediante prorrateo.

5. *Procedimiento para la concesión de subvenciones.*

La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva.

1. Especificaciones.

La distribución de la cantidad designada a esta línea de subvenciones, se realizará porcentualmente entre todos los proyectos presentados y admitidos.

2. Propuesta de adjudicación.

El Departamento de Juventud procederá al estudio y la valoración de los citados criterios en cada caso.

Posteriormente, se realizará la propuesta de adjudicación de subvenciones, en cada caso, en la manera descrita anteriormente.

Se podrán realizar pagos anticipados que supondrán entregas de fondos con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención. En cualquier caso, el abono de la parte final quedará condicionado a la justificación del gasto realizado.

6. *Financiación de las actividades subvencionadas.*

Los anexos correspondientes a las subvenciones podrán exigir un importe de financiación propia. La aportación de fondos propios a la actividad subvencionada habrá de ser acreditada de la misma forma que los gastos habidos en dicha actividad.

Salvo que los anexos de las presentes bases reguladoras específicas dispongan lo contrario, las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado siguiente.

El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, supere el coste de la actividad subvencionada, sin perjuicio de los beneficios que el proyecto subvencionado pueda producir en el futuro.

*7. Izapidea.*

Instrukzioa eta proposamena indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera egingo da.

Organo eskudunak:

— Instrukzioa: Gazteriako arduraduna.

— Balorazio Batzordea: Kide anitzeko organo bat, gaztediaren inguruko gaiak jorratzen direna.

— Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraiki.

Dirulaguntzak emateko prozedura izapidetzea Gazteria Departamentuaren eginkizuna da, eta hari dagokio behar diren ekintza guztiak egitea, ofizioz, ebazpen proposamena gauza dadin beharrezkoak diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko.

Gazteria Departamentuak dirulaguntza eskaerei buruz egingo duen aurre ebaluazioarekin hasiko da instrukzio fasea. Aurre ebaluazioak egiaztatuko du, eskatzaileak dirulaguntzaren onuradun izaera eskuratzeko ezarririk dauden baldintza guztiak betetzen dituela eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta egokia dela.

Gazteriako arduradunak dirulaguntza deialdira aurkeztutako eskaeren balorazio txostena egingo du.

Eskaerak ebaluatu ondoren, ebazpen proposamena egingo du Balorazio Batzordeak. behar bezala arrazoituta, eta organo eskudunari aurkeztuko dio ebazpena eman dezan.

Ebaluazioaren emaitza dirulaguntza ez ematekoa baldin bada, dagokion ebazpena eman aurretik, interesdunei 10 eguneko epea eskainiko zaie entzuteko tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

*8. Ebazpena.*

Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraiki.

Ebazpena arrazoitu egingo da, eta nolanahi ere, prozeduran ziurtatu egin beharko dira onartzen den ebazpenaren oinarriak, eta horretarako kontuan izango dira dirulaguntzak emateko arauetako irizpide objektiboak.

Dirulaguntza emateko ebazpenak argi zehaztu beharko ditu dirulaguntzaren xedea, eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ordainketa erak eta epeak, eta dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurtso bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, eta interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

Prozeduraren ebazpenak eman eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da deialdia argitaratzen denetik aurrera.

Oinarri hauetan aurreikusten diren diru-laguntzak emateko prozeduraren barnean gerta daitezkeen ustezko egintzak ezestekotzat hartu behar dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak xedatutakoaren arabera.

Prozeduraren ebazpena jakinaraziko zaie interesdunei indarrean dagoen araudiak jasotzen duenaren arabera.

*7. Instrucción.*

La instrucción y la propuesta se realizarán conforme a lo dispuesto en la normativa en vigor.

Órganos competentes:

— Instrucción: La responsable de Juventud.

— Comisión de Valoración: Un órgano colegiado donde se traten los temas de juventud.

— Resolución: Corresponderá a la Alcaldía o a la Junta de Gobierno Local conforme a las competencias y eventuales delegaciones vigentes en cada momento en la organización administrativa del Ayuntamiento.

La instrucción del procedimiento de concesión de subvenciones corresponde al Departamento de Juventud, quien realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

La fase de instrucción se iniciará con la preevaluación que realice el Departamento de Juventud de la solicitud de subvención, que consistirá en la verificación del cumplimiento de las condiciones establecidas para adquirir la condición de beneficiaria de la subvención por parte de la persona solicitante y de que la documentación presentada se encuentra completa y es correcta.

La responsable de Juventud emitirá informe de valoración de las solicitudes presentadas a la convocatoria de las subvenciones.

Una vez evaluadas las solicitudes, la Comisión Evaluadora formulará la propuesta de resolución, debidamente motivada, que será elevada al órgano competente para su resolución.

Cuando la evaluación efectuada resulte desfavorable respecto de la concesión de subvención, de modo previo a dictar la resolución correspondiente, se otorgará a las personas interesadas trámite de audiencia por plazo de 10 días para formular alegaciones.

*8. Resolución.*

La resolución corresponderá a la Alcaldía o a la Junta de Gobierno Local, conforme a las competencias y eventuales delegaciones vigentes en cada momento en la organización administrativa del Ayuntamiento.

La resolución se motivará y, en todo caso, quedarán acreditados en el procedimiento los fundamentos de la resolución que se adopte, con referencia a los criterios objetivos de concesión que rigen las correspondientes subvenciones.

En la resolución de concesión de la subvención se deberá hacer constar expresamente el objeto, solicitante o relación de solicitantes a los que se concede la subvención, importe, forma y plazos de pago, y demás condiciones y requisitos exigidos por las bases reguladoras específicas de las subvenciones. Igualmente, en la resolución se indicarán los recursos que contra la misma procedan, así como el órgano ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que las personas interesadas puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente.

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento no podrá exceder de tres meses. El plazo se computará a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria.

En relación con el procedimiento de concesión de las subvenciones objeto de estas bases, los actos presuntos que puedan producirse se entenderán desestimatorios, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 29/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones.

La resolución del procedimiento se notificará a las personas interesadas de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente.

EK\CV GAO-I-2020-04278

*9. Zuzkidura eta aurrekontu partida.*

Dirulaguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Gazteria Departamentuaren urteko deialdian ezarriko dira.

Aurrekontuan izendatutako diru kopurua nahikoa ez bada dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, banaketa proportzionala egingo da baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien artean.

*10. Onuradunen betebeharrak.*

Pertsona onuradunaren betebeharrak hauek dira:

a) Dirulaguntzen emakida sortu duen helburua bete, proiektua gauzatu edo jarduera egin. Bere produktuaren aurkezpena egin Gazteria Departamentuarekin elkarlanean.

b) Organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatu beharko du dirulaguntzak emateko edo horiek gozatzeko baldintza modura jarri diren betekizunak eta baldintzak bete direla, jarduera egin dela, eta dirulaguntzaren xedea bete dela.

c) Organo emaileak indarrean dagoen legediaren arabera egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta horietan lagundu, bai eta kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende ere. Horretarako aurreko eginkizunetan ari direla eskatzen dioten informazio guztia aurkeztu beharko du.

d) Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalarenak egunean dituela egiaztatu.

Erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, erantzukizuneko aitorpena aurkeztu daiteke, besteak beste, kasu hauetan:

— 3.000 €-tik beherako dirulaguntza eskaeretan.

— Zarauzko Udaleko organo eskudunak dirulaguntzaren izaera, araubidea edo zenbatekoa direla-eta, behar bezala justifikatutako egoerak gertatzeagatik ezartzen dituenak.

Gainerako kasuetarako, pertsona eskatzaileak eskaeran organo emaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena erantsi ahal izango du, eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien ziurtagiriak ekarri beharko.

Zarauzko Udalaren zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko, hiritarrek eskubidea dute Administrazioaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko. Kasu horretan tokiko erakundeak berak ziurtagiri bat egingo du, eta espedienteari erantsiko zaio.

e) Lau urteko epean gordeko dira hartutako fondoen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol-jardunen aztergai izan daitezkeelako.

f) Organo emaileari jakinarazi, hala badagokio, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazioko zein nazioartekotatik, diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu izana.

g) Dirulaguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.

h) Indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan jasotako fondoak itzuli.

*9. Dotación y partida presupuestaria.*

La dotación y las partidas presupuestarias de las subvenciones se establecerán en las correspondientes convocatorias anuales del Departamento de Juventud.

Si la dotación presupuestaria consignada no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a subvención, se procederá al prorrateo proporcional entre las solicitudes que cumplen todos los requisitos.

*10. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

Son obligaciones de la persona beneficiaria:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto o realizar la actividad que fundamenta la concesión de las subvenciones. Realizar la presentación de su producto en colaboración con el Departamento de Juventud.

b) Justificar ante el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Someterse y colaborar en los términos de la legislación vigente a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

d) Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y del Ayuntamiento de Zarautz.

La presentación de declaración responsable podrá sustituir a la presentación de las certificaciones de los correspondientes organismos, entre otros, en los siguientes casos:

— Aquellos cuya solicitud de subvención no supere el importe de 3.000 euros.

— Aquellas que, por concurrir circunstancias debidamente justificadas, derivadas de la naturaleza, régimen o cuantía de la subvención, establezca el órgano competente del Ayuntamiento de Zarautz.

Para los demás casos, la persona solicitante podrá incluir en la solicitud la autorización para que el órgano concedente obtenga de forma directa la acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social a través de certificados telemáticos, en cuyo caso no deberá aportar las correspondientes certificaciones.

Para la acreditación de la obligación de estar al corriente de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Zarautz, se reconoce el derecho de los ciudadanos a no presentar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración, en cuyo caso la propia entidad local emitirá una certificación, que se incorporará al expediente.

e) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, durante un plazo de cuatro años.

f) Comunicar al órgano concedente, en su caso, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la actividad subvencionada, procedentes de cualesquiera administraciones o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales.

g) Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

h) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos previstos en la normativa vigente.

EK\CV GAO-I-2020-04278

i) Diruz lagundutako jardueraren hedapen-ekintzetan, jasota geratu beharko da Zarauzko Udalak dirulaguntza bidez emandako lankidetzak.

j) Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.

k) Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz bakarrik idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz soilik transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

Dirulaguntza eskatu nahi dutenek urteroko deialdian zehazten den eskaera-fitxa bete beharko dute. Inprimakiarekin batera agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:

— Eskatzailearen NANaren fotokopia.

— Egingo diren gastuen aurrekontua.

— Taldeen kasuan, taldeko beste partaideen izen-deiturak eta NANaren zenbakia.

— Proiektuaren azalpena.

— Dirua sartzeko kontu korronte zenbakia.

Gazteriako arduradunak bide-laguntza emango die proiektuak aurkezteko, hala eskatzen duten gazteei.

Nolanahi ere, eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal izango zaie eskatutako dirulaguntza behar bezala baloratu ahal izateko.

*11. Dirulaguntzak ordaintzea.*

Laguntzak ordaintzeko aurrez Gazteria Departamentuaren aldeko txostena beharko da. Bertan egiaztatuko da laguntza emateko erabakian jarritako baldintzak bete direla.

Dirulaguntza ordainketa bakar batean egingo da banku-transferentzia bidez, zuritu eta gero.

Ez dago graduazio irizpiderik, erabiliko den irizpide bakarra jarduera edo ekintza egin den edo ez izango da.

*12. Dirulaguntzaren xedea justifikatzea.*

Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa indarrean dagoen araubideari jarraiki egingo da, eta Gazteria Departamentuaren urteko deialdian ezartzen den epeetan aurkeztu beharko da.

